

5 NOV 09

AIHERRA

Astearte arratsean, 18.GAU BEILA, 9.00etan Denen Etxean

Kantuz eta musikan WATSON (Patrice Dumora) Nat CAZARE musikariarekin

LOS VIERNES AL RON Antzuolako folk taldea

JM BEDAXAGAR, M. AROTZE eta M. ETXEKOPAR (Xiberotik)

Bertsutan... Ekhi Erremundegi, Maddalen Arzallus eta Patxi Iriart

UGUTZ ixtorio kondan



2008 ko Gau Beilan, entzuleak artister begira

“ Denen Etxea ” gela berotuan. Mahain eta kandelen inguruan, giro goxoan.

Edari fresko eta beroak. Herritarrek eskaini bixkotx onak !!!

ONGI ETORRI DENERI ! ! ! !

Gau Beilako, bixkotxen beharra

Ohidurari jarraikiz, Belzuntze elkarte-koek dei berezi bat egiten dute herritar bixkotx egileeri, “Gau Beilako, arratseko 7tan ekartzea zuen emaitza Denen Etxera galdatua zautzue. Ondorioz zueri esker ikusle guziak ongi errezebituak izanen dira”. Aitzinetik milesker ! ! Eta **ONGI ETORRI DENERI ! !**

Igandean, Behobia Donostia lasterketa

Urte guziz Aihertar batzuk parte hartzen dute Behobitik Donostiarateko maratoni erdian. Helduden igandean da iraganen lasterketa mitiko hori, orotarar 16 000 lasterkaririk parte hartuko dutelarik. Horien artean, 4 Aihertarrek parte hartu beharra dute. Kuraia on Frantxoa, Peio, Anje eta J- Mixel-i !

19 NOV 09

AIHERRA

6 aihertarrek parte hartu Behobia-Donostia lasterketan

Urte guziz, azaroko 2.igandean antolatzen da Behobiatik Donostiarateko maratoni erdia. Urte guziz parte hartzaileen kopurua goitituz doa, eta gure herritik ere. Aurten 6 ziren, 15 000 lasterkariren erdian, eta denbora txarra izana gatik, denak kontent itzuli dira. Deia helduden urteko lasterkaldiari pentsatzen dute. Biba zuek eta segi aitzina !!

18.Gau Beilaren ondotik

Iragan azaroaren 10-eko 18.Gau Beila goxoki iragan da.

Hor ere behar zen kuraia etxetik jalitzeko. Halere, 18.Gau Beila hunek 180 ikusle elgarretarazi ditu, giro onean. Gau Beila goxoa, baina luzexkoa izan dela erran ginezake. Aurtengo artistak ziren J- Mixel BEDAXAGAR, Mixel AROTCE eta Mixel ETXEKOPAR Xiberotarrak, “Los Viernes

al ron” Antzuolako kantariak, WATSON eta Nat CAZARE Lapurtarrak, UGUTZ Beskoiztar ixtorio kondalaria, eta Patxi IRIART, Maddalen ARZALLUS eta Ekhi ERREMUNDEGI lapurtar bertsulariak.

Ez da dudarik holako gaudiak, antolatzailleeri lan berean segitzeko, enbeia emaiten dietela. Milesker haundi bat zor diegu holako ikusgarri bat eskaini daukuten Belzuntze batasuneko kideeri, ahantzi gabe herritar bixkotx egile guziak. Helduden urte arte !

Parropiatik abisu

Hilabete hunen azken igandean (29-an) izanen da parropia osoaren biltzerra Hazparnen, 10 -etako mezarekin Mendean. Meza horren prestatzeko, korala edo kantoreak gomiatuak dira Hazparneko elizarat azaroaren 26-an, arratseko 8ak eta 1/2tan.



ezkerretik eskuinera, J- Mixel BEDAXAGAR, Mixel AROTCE eta Mixel ETXEKOPAR Xiberotarrak